

Amets gorrien auraur motzer, orken ertraren Haiara.

Milaka pertsona, lerro amaigabeak osatuz. Bata bestearen atzetik, bata bestearen ondoan, distantzia zehatza mantenduz, zuzenaren perfektzioan. Uniforme gris, berunek janzten dituzte gizon-emakumeen gorputzak; guztion aurpegietan indiferentzia bera irakur daiteke.

Martzialtasun militarrez, ballet itzalak aginduena soinu dantza dagi (ezker-eskubi, atzera-aurrera), sinkronia osoz. Arinki. Zurrunbilo ordenatu haren parte nintzen ni. Erritmoa mantenduz mugitzen nituen beso, oin, buru eta begiak. Baina bapatean itogarri zitzaizkidan geldotasuna eta lotura sentierazi zizkidaten mugimendu aurrefabrikatu haiek. Inertzia zapaltzaile hura hausten zuen indar ikustezin batek bultzaturik, lerroa utzi nuen. Kanpotik begiratuta desberdinak dira gauzak. Orduan bai, lausorik gabe nekusan errealitatea. Milaka pertsona; kanpotik desberdinak, baina barrutik klonak; bozgorailu itzeletatik zetorren erritmoari jarraituz. Zonbiak bezala.

Bozgorailuak zerabiltzan gizonttoak, geldirik ikusi ninduenean ahots kraskatuz txilio egin zidan: «Itzul hadi lerrora!! Izan denak bezala-

koa!!». Baina bere mintzamolde erridikuluak ez zeukan jada niregan inongo eragin hipnotikorik. Bira erdi eman eta hormigoizko pabiloi handiaren ate ttikirantz hurbildu nituen nire pausuak. Atezka astuna zen, irekitzen zaila. Atzerantz so egin nuen. Espero nuen bezalaxe, ez neukan inor begira. Guztiek, aparteko keiturik egin gabe, mekanikoki mugitzen jarraitzen zuten. Inork ez zuen nire hutsunea nabarrituko, hormigoizko munduan inor ez bait da ezinbestekoa. Bai, gurpil handiak biraka jarraituko zuen, baina niri ez zitzaidan axola. Nire uniforme grisa ate ondoan utzi eta bilutsik, eta betirako, bertatik irten nintzen.

Goizaldeko eguzkiaren berotasun herabeak bizia piztu zuen horma grisen itzalean hazitako nire begietan.

«Prefabrikatutako ametsetan, estatistikaren zeruan, borondatea ittoa izan da kontsumoaren ferian.»

Hertzainak

Ziutatean, neska bat; asfaltuan jaio eta hazitako odolezko fruitu bat, boutique dotore batean dago. «Es que estoy muy gorda», esaten dio, kexuz, dendariari, aitatxoren kreditu-txartelarekin inoiz jantziko ez duen arropa ordaintzen duen bitartean.

Eta egia da, gure neska gizona dago; hori da bere kezka bakarra. Gaur, ume afrikar batek telebistatik begiratu nau. Haren begi beltz eta hondoratuek mezu urratua daramate, bere sabel puztuak, bere argaltasunak, euliz beteriko ahoak, salatzen gaituzte. Eta gaur, bihar eta etzi egingo dugun lez, bere oihuari entzungor egin diogu. Izan ere, gure zilborrari begiratzek lan handia eskatzen digu. Kristalezko kutxak eskainten dizkigun irudiek ez gaituzte eskatzen. Inoiz aldatuko al gara? Jasoko al ditugu begiak gure ingurura begiratzeko? Inoiz izango al dugu gure bizitzaren jabe izateko adina kemen?

Gaur, ume afrikar batek telebistatik begiratu nau. Niri, Martin Luther King-i bezala, amets egitea gustatzen zait. Hormigoizko munduan amets egitea txarra zela esan zidaten. Beraz, indiferentziaren murrak birrinduz, amets egin dezagun. Batera.


«It's no secret that the stars
are falling from the sky.
It's no secret that our world
is in darkness tonight.
The universe is exploding
cause the whole Man's lie...
It's no secret at all.»

U2

«Ez da sekretua izarrak
zerutik erortzen ari direla.
Ez da sekretua gure mundua
ilunpean dagoela gaur.
Gizateriaren gezurrak
unibertsoa eztandarazi du...
Ez da inolaz ere sekretua.»

U2





«I've seen the nations
rise and fall,
I heard their stories, heard them all
...but love's the only engine
of survival.»

Leonard Cohen

«Nazioak jaso eta erortzen ikusi ditut,
entzun ditut beraien istorioak,
entzun guztiak
...baina maitasuna da bizitzaren
motore bakarra.»

Leonard Cohen

Izoztua eta izoztailea da hormigoizko mundua. Udan, eguzkiak bete-betean jotzen duenean ere, hotz dago bertan. Izan ere, milaka eguzkik baino gehiago berotzen duten gizatasuna eta xamurtasuna falta zaizkio.

Hormigoizko munduan hoztasunez bizitzen erakutsi zidaten. Baina ni erre arte hurbiltzen naiz arimaren sutondora.

Iluntasunak bildurik, bi gazte, bi pertsona, bi maitale, bi bihotz. Arimarekin, bere gorputz gazteak laztantzen dituzte. Arimarekin ezpain eztiak musukatuz, emeki maitasuna dagite. Ez, ez, da sexua. Amodioa besterik ez da, arintasunaren kateetatik askatu dituen amodio bera.

Eta amodiorik gabe, xamurtasunik gabe, haragikeria eta plazerra hedonismoaren suaren islada besterik ez dira. Ez naiz pekatu eta moralitateari buruz ari, giza-sentimendu irrazionalena goratzen dut. Askagarri, maitasuna tenplu bat da, arima ahizparen iturri bizitik edateko kaliza, lege gorena. Astuna, hilezina, ezezaguna, definigaitza, menderaezina. Maitasuna. Unibertsoan esistitzen den fusio-indarririk boteretsuena. Maitaleak, pertsona desberdinak izan arren, sakonean bat eta bakarra dira. Bata bestearen barruan daramate, eta pertsona maitatuaren zamak beraien bizitzak zerua hatz punttekin ikutzeraino jasotzen ditu.

Horrexegatik, hormigoizko munduari eraso-
kor zaio maitasuna.



Haur bat nintzenetik korrontearen kontra joatea gustatu (ala egokitu?) izan zait. Norbait zerbait zuria dela esan eta leloki errepikatu aurretik, nere begiez egiaztatzea gustatzen zait. Ez naiz, beraz, itsu-itsuan artaldeari jarraitzen zaion horietakoa. Eta hori, hormigoizko munduan, ez da zilegi.

Nire bide laburrean zartada larriak jaso izan ditut. Oso behean egon naiz. Baina bizitzak zerbait irakatsi badit, nire ideien alde borroka egitea izan da. Eta hormigoizko mundua utzi nuenetik, badakit nire agoniak galtzaileen baitailoiaren bideetatik naramala.

Duela oso gutxi, garrantzia gabeko elkarrizketa batetan, ironikoki, honakoa bota zidaten: «Zu ez zara bizitzan ezer izango». Hori esan zidan pertsonak, zeinak hormigoizko hormen hoztasuna biziki maite duen, galtzaile deitzearekin minduko ninduela uste zuen. Ez zuen, ba, lortu, are gehiago, asko poztu nintzen.

Gizadiaren Historian, zerbait izan direnek, irabazleek, domina ugari daramatzate beren hipokresia, ustelkeria, odolzalakeria, eta kru-delkeria jantzien gaintetik. Txiki eta behartsu, marginatu eta ahulen borroka, berriz, ahaztua izan da, mina eta sufrimendua ez baitira materialiaz neurtzen. Baina hormigoizko munduaren sirena kantuari ezetza ematen dion norbait dagoen artean, gizon-emakume zapalduen oihua ez da hilko.

Bizitza honetan irabazle izateak; arrakasta besteen bizkarren gainean eraikitzea suposatzen badu; gailurrera iristeko ustelkerian jaus-

tea beharrezko bazait, nirea ez den odol ttantta bakar bat isuri behar badut, eta hipokresia, azalkeria eta materialismoa lege bakartzat jo behar baditut, nahiago dut galtzaile izan. Hormigoizko munduan giza-duintasuna eta norberarekiko errespetua txankame-trukean galdu dira. Ez naiz hortik pasako. Izan bedi gizona gizonarentzat otso, hala nahi badu. Baina niri ez eskatu urkoaren berna horzkatzerik.

Hormigoizko munduan, gizonak bere gizatasauna ahaztu du. Hotzak dira asfaltozko erre-pideak, hotzak neoizko argiak. Gizonak plastikozko bizitza sortu du, non materia izan ezik ezer ez den egiazko, non gizonak lilura ahalmena galdu duen, non itzalen soegitearekin konformatzen den. Gizartea oparitu zaion kleenex zoriontasunari loturik bizi da; erabili eta botatzeko poza, alaitasun iragankor eta kimikoa, plazer faltsu eta artifiziala. Armiarma berak eraikitako asfaltozko sarean erori da.

Baina gizonak hormigoizko mundua irents dezake, edo ttu egin.

Gizonak hoztasuna ok egin dezake, edo bertan itto.

Gizonak amets egin dezake, beraz, amets beza ozenki.

Gizonak bila diezaioke kobazuloari irteera.

Gizonak gizateria suntsi dezake, edo bere gizatasaunari heldu.

Ametsak eraiki, errespontsabilitateak hartu.

Eta gizonak maita dezake, maita dezake.

Badakit itsasaldia aldatzen ari dena.

Zatoz azken ertzaren kaira. ■

